



## Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

## Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

## Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Andoni Alvarez Lete
	Estibalitz Mujika Tolaretxipi
	Jon Zulueta Berastegi
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Julian López Aracama
PSE-EE	M <sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun
	Xabier Fondón Pajares
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
EAJ-PNV	Petra Romero Pozo
	Maria Jose Izagirre Iturzaeta
	Alexander Huitzi Alfonso
Elkarrekin Podemos	M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández
	Imanol Goenaga Egibar
	M <sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000006
Eguna	2022/05/26
Hasiera	19.00
Amaiera	19.45

## Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

## Kontuhartzailea

Myriam Lizaso

Arruabarrena

## Interpretaria

Jon Unanue Lopez

## Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo González PSE-EE

## Gai Zerrenda:

- 2022/05/06(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

## Xedapenak

- Andoingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren HEE 51 Antzizu guneari dagokion Plan artziazalaren testu bategina behin betiko izaeraz onartzea.
- Andoingo udalaren Iruzzurraren Aurkako Neurrien Plana onartzeko erabaki proposamena
- Gizartearentzat lan egiteko zigorrak benetan betetzea zioarekin Eusko Jaurlaritza - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailarekin lankidetzeta hitzarmena onartzeko proposamena.
- 2021eko likidazioaren berri ematea
- 2022/01 eta 2022/02 zk. espedienteen berri ematea

## Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 06/05/2022.

## Parte Dispositiva

- Aprobación definitiva del texto refundido del Plan Parcial del ámbito AIU 51 Antzizu del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain.
- Propuesta de acuerdo de aprobación del Plan de Medidas Antifraude del ayuntamiento de Andoain
- Propuesta de aprobación del convenio de colaboración con el Gobierno Vasco - Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales para el efectivo cumplimiento de las penas de trabajo en beneficio de la comunidad.
- Dar cuenta de la liquidación de 2021
- Dar cuenta de los expedientes 01/2022 y 02/2022



- |  |   |
|--|---|
| 7. 2022/03 zk. kreditu aldaketa espedientea onartzea | 7.- Aprobación del expediente de modificación de crédito 03/2022. |
| 8. Jarduera Fisiko eta Kirolak Tasen aldaketa        | 8.- Modificación tasas Actividad Física y Deporte                 |

**Kontrola**

- 9. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 675/2022 zenbakidunetik 846/2022 zenbakidunera.
- 10. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 9.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 675/2022 y la nº 846/2022.
- 10.-Ruegos, preguntas y propuestas.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2022ko maitzaren 26ko Udalbatzar honetara.

“Muy buenas tardes a todos y a todas y bienvenidos seais al pleno del 26 de mayo de 2022.

“Lehenik aipatzea, Oscar Mendo zinegotzi jauna oraindik bajaran dagoela eta bere bozka José Luis Verdasco jaunarengan ordezkatu du.

“Decimos que el concejal D. Oscar Mendo sigue de baja por enfermedad y en consecuencia delega su voto en el concejal D. José Luis Verdasco.

“Hau kontutan izanda hasiera emango diogu plenoari.”

**1. 2022/04/28 eta 2022/05/06 datetan egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aipatu bidali zaizkizuela aktak zuzenduta, idazketa akatsak zeudelako, goizean zehar edo eguerdian.

“Comentar que se han remitido al mediodía las actas de ambas sesiones corregidas, había algunos errores de redacción y, serían esas las actas que se someten a aprobación.”

Lehendabizi, 2022/04/28 eta 2022/05/06 datako batzarraldiei dagozkien aktak aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman dira..

**2. Andoingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren HEE 51 Antzizu guneari dagokion Plan artziazalaren testu bategina behin betiko izaeraz onartzea.**

Kontuan harturik alkatetzak, 2019ko irailaren 13an emandako 601/2019 zenbakiko ebazpenaren bidez, hasierako izaeraz onartu zuela Andoingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren HEE 51 Antzizu guneari dagokion Plan Partziala, ebazpenean bertan adierazitako baldintzekin eta plan hori, plan partzialaren ingurumen-azterketa estrategikoa eta dagokion administrazio-espedientearen jendaurrean jarri ziren, 45 egun balioduneko epean, 2019ko irailaren 23ko 181 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren, 2019ko irailaren 24ko Diario Vasco eta Gara egunkarietan, udaleko iragarki taulan eta web gunean argitaratutako iragarkiaren bidez, interesatuek egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan zezaten.

Kontuan harturik gaia jendaurrean jartzeko izapidearekin batera, eraginpeko herri administrazioei eta aurretik gaiaz galdetu zitzaizela pertsona interesdunei kontsultatu zitzaizela, 45 egun baliodun epean egoki iritzitako txosten eta argudioak idatziz aurkez zitzaizela, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontuan harturik, era berean, eragindako administrazio sektorialeiei ere bidali zitzaizela dokumentua,



horri buruzko txostenak egin zituzten.

Kontuan harturik dokumentua hasierako izaeraz onartzen zuen erabakia plan partzialaren eremuan lursailak dituzten jabeei jakinarazi zitzairen.

Kontuan harturik espedientea jendaurrean egon zen bitartean (2019ko azaroaren 27an amaitu zen epea), bi alegazio aurkeztu zirela, Urkiondo Ekolur SL eta Miguel Ángel Ariztimuño Ansorena jaunak eginak, Udaleko idazkariak 2019ko abenduaren 3an egindako ziurtagirian jasotzen den bezalaxe.

Ikusirik administrazio-espedienteen jasotako txostenak ikusita, Alkateak, 2020ko urriaren 9ko 569/2020 Ebazpenaren bitartez, egindako alegazioak ebazpenean bertan adierazitako zentzuan ebatzi zituen, eta Sapa Operaciones SL enpresari, planaren sustatzaileari, jakinarazi zion, behin betiko onespenerabakia hartu aurretik, honako agiri hauek aurkeztu behar zituela:

a) Plan Partzialaren azken dokumentua, hasierako onespenera-akordioan adierazitako baldintzak jasotzen dituen, bai eta jendaurreko erakustaldian egindako alegazioetatik eta espedienteen dauden txosten sektorialetatik eratorritako aldaketak eta doikuntzak ere, ingurumen-azterketa estrategikoaren espediente osoa Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari igortzeko, ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko.

b) Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aipatzen den laburpen-dokumentua. Dokumentu horrek deskribatuko du planaren edo programaren azken proposamenen ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismen-dokumentura egokitzea eta egindako kontsulten emaitzak eta horiek nola hartu diren kontuan.

Ikusirik ebazpen hori alegazioak egin zituzten guztiei eta planaren sustatzaileari jakinarazi zitzaizela.

Kontuan harturik 2020ko azaroaren 13an, Udal honetan aurkeztu zirela behin betiko izaeraz onartuak izateko 51 Antzizu HEEren Plan Partziala, 51 Antzizu HEEren Plan Partzialaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa eta ingurumen neurriak eta kontsultak plan partzialean integratzeko dokumentua.

Ikusirik Hirigintzako zinegotzi ahaldunak 2021eko maiatzaren 11n egindako idazkiaren bidez, plan partziala idatzi zuen taldeari jakinarazi zitzaion ezen, erreferentzia jarraituko plan partziala behin-behinean onartu aurretik, idazkian bertan adierazitako dokumentazio osagarria aurkeztu behar zela.

Kontuan harturik 2021eko azaroaren 10ean, Udal honetan aurkeztu ziren behin betiko izaeraz onartuak izateko 51 Antzizu HEEren Plan Partziala, 51 Antzizu HEEren Plan Partzialaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa eta ingurumen neurriak, EAEn eta kontsultak plan partzialean integratzeko dokumentua.

Ikusirik udal teknikoek egindako aldeko txostenak, Alkateak, 2021eko abenduaren 17ko 2246/2021 Ebazpenaren bitartez, honako erabakiak hartu zituen:

a) HEE 51 Antzizu plan partzialari behin-behineko onspena ematea, beti ere honako baldintza honekin: Agiria behin betiko izaeraz onartu aurretik, testu bategina aurkeztu behar da, ingurumen-organoak egiten duen ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondorioz sartu beharreko aldaketak eta/edo doikuntzak eta dokumentuaren tramitazioan egindako txosten sektorialetan aipaturiko hainbat baldintza jasotzeko. Zehazki, testu bateginean baldintza hauek jaso behar dira:

- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiak 2019/12/05ean Udalari bidalitako txostenean ezarritakoarekin bat etorritik, Plan Partzialak Donostiako Aireportuko Zortasun Aeronautikoen planoak jaso behar du bere arauzko planoetan, Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza horrek igorritakoa, eta, aldi berean, Plan Partzialaren araudian berariaz jaso behar da aipatutako txosten orokorraren 1. paragrafoan jasotakoa.

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak 2019ko azaroaren 11n egindako txostenean adierazten da beharrezkoa dela Plan Partzialaren Ingurumen Azterlan Estrategikoak aipatzen duen Birlandaretze Plana idaztea, izapidetzen ari den Plan Partzialarekin batera. Bere izaera eta irismena kontuan hartuta, egokiagotzat jotzen da aipatutako Birlandaretze Plana Urbanizazio Proiektuarekin batera egitea, eta nahikotzat jotzen da Plan Partzialak bere araudian Urbanizazio Proiektuak aipatutako Birlandaretze Plana barne hartzea.

b) Ebazpen hau, plan partziala eta ingurumen-ebaluazioa arautzen duen abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1.d) artikuluan eskatutako laburpen-dokumentua igortzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari dagokion ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.



Kontuan harturik Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak 2022ko otsailaren 24an eman zuen Ebazpena, non Andoingo HEE 51 Antzizu eremuko Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa formulatzen den.

Kontuan harturik ebazpen hori 2022ko martxoaren 18ko 56 zenbakiko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela

Kontuan harturik 2022ko martxoaren 28an aurkeztu dela udaletxe honetan aipuan daukagun plan partzialaren testuategina, behin betiko izaeraz onartua izateko.

Eragindako administrazio sektorialek emandako aldeko txostenak eta haietan adierazitako baldintzak ikusi dira, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariak egindako Plan Partzialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ere.

Era berean, udal arkitektoak 2022ko martxoaren 31n egindako aldeko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, 2022ko otsailaren 28an aurkeztutako dokumentuak 2021eko abenduaren 17ko 2246/2021 zenbakiko Alkatzaren Ebazpenean jasotako baldintzak betetzen ditu. Ebazpen horren bidez, behin-behinean onartu zen HEE 51 Antzizu eremuko plan partziala, eta bertan adierazten zen, plan partziala behin betiko izaeraz onartu aurretik, testuategina aurkeztu beharke zela, eta bertan jasoko zirela ingurumen-organoak egiten duen ingurumen-adierazpen estrategikoaren ondorioz sartu beharreko aldaketak eta/edo doikuntzak eta dokumentuaren tramitazioan egindako txosten sektorialetan aipaturiko hainbat baldintza.

Ikusirik, hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2022eko maiatzaren 6an egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2022/05/12 datako irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, buenas tardes. El pasado mes de septiembre de 2019, mediante resolución se aprobó inicialmente el plan parcial, fue sometido a información pública por un periodo de 45 días, para que todos y todas los y las interesados formularan las alegaciones que consideraran pertinentes. Simultáneamente se formuló consulta a las administraciones sectoriales afectadas para que emitieran también los pertinentes informes. Durante ese periodo de exposición pública se presentaron dos alegaciones por parte de la empresa Urkiondo Ekolur y por parte de D. Miguel Angel Ariztimuño.

“En octubre del año 2020 se resolvieron las alegaciones y se informó a la promotora que previo a la aprobación definitiva debería presentar el documento final del plan parcial que recoja las condiciones indicadas en la aprobación inicial, así como las modificaciones y ajustes derivados de las alegaciones formuladas y de los informes sectoriales.

“En noviembre de 2021, se presentó en el ayuntamiento el plan parcial para la aprobación definitiva, junto con el estudio ambiental estratégico. En diciembre de ese mismo año, mediante resolución se aprobó inicialmente en plan parcial, con la condición de que previo a su aprobación definitiva se presentara el preceptivo texto refundido y que integrara los ajustes derivados de la declaración ambiental estratégica y de los informes sectoriales recibidos.

“Paralelo a ello, se remitió dicha resolución, junto con el plan parcial y el documento resumen referido de evaluación ambiental al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente del Gobierno Vasco para que emitiera la declaración ambiental estratégica. Ya en este año, en el mes de febrero, se recibió dicha declaración ambiental estratégica y en marzo de este mismo año se recibió el texto refundido definitivo remitido por la promotora. Teniendo en cuenta también, los informes favorables, tanto del arquitecto municipal, como de la técnico de administración general del Departamento Municipal de Urbanismo y Servicios, sometemos a aprobación por parte del Pleno de la aprobación definitiva del Plan Parcial de Antzizu.”

Alkate andreak proposamena eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Behin betiko izaeraz onestea Sapa Operaciones SL enpresaren izenean diharduen LKS Ingeniería



S. Coop. enpresak 2022ko martxoaren 28an aurkeztu zuen Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko HEE 51 Antzizu hiriguneari dagokion Plan Partzialaren testu bateratua, Marta Diaz de Cerio arkitektoak, Marco Segurola geografoak eta Luis Anduaga arkitektoak 2022ko martxoan idatzia.

2.- Erabaki hau, Plan Partzialarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, erregistroan gordailatu dezaten, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.3 artikuluari jarraiki.

3.- Behin betiko onespren-erabaki hau, aipatu Plan Partzialeko hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Erabakia argitaratuko da, baita ere, Gipuzkoan gehiago irakurtzen den egunkarietako batean.

4.- Erabaki hau jakinaraztea Sapa Operaciones SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen LKS Ingeniería S. Coop. enpresari, nola baita ere administrazio-espeditentean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

5.- Erabaki honen berri ematea Errenta eta Ordainarazpen lansailari.

### **3. Andoingo udalaren Iruzzarren Aurkako Neurrien Plana onartzeko erabaki proposamena.**

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planaren kudeaketa-sistema eratzen duenak, ezartzen duenez, erakunde erabakitzaile edo betearazle orok, Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planeko (PRTR-) neurriak betearazten parte hartzen badu, iruzurraren aurkako neurrien plan bat eduki beharko du, eta plan horrek, dagokion esparruan, bermatu eta aitortu beharko du ezen, dagokion eremuan, dagokion jarduketan erabili diren arauekin bat datorrela. (6.1 HFP/1030/2021 Agindua).

Andoingo Udalaren osoko bilkurak, 2022ko apirilaren 28an egindako bilkuran, ANDOAINENKO UDALAREN IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA onartzea erabaki zuen. Adierazpen instituzional horren arabera, Andoingo Udalak konpromisoa hartzen du EBko funtsak lortzeko eta bideratzeko espeditenteen estandar etiko onenekin bat datorren izapidetze eraginkorra bermatuko duten kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredu bat hartzeko, PRTR planean aurreikusitako helburuak bete ditzan. Ondorioz, Andoingo Udalak Iruzzarren aurkako Neurrien Plana onartzeko konpromiso instituzionala hartu du 2022ko ekainaren 30a baino lehen.

Aurrekoa aplikatuz, udal-zerbitzuek Andoingo Udalaren Iruzzarren aurkako Neurrien Plana idatzi dute, beste administrazio publiko batzuek onartu beharreko beste plan batzuen erreferentzia hartuta, bai eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena, eta EUDELEk gaiari buruz bidalitako dokumentazioa eta informazioa ere.

Alkatearen 2022ko maiatzaren 11ko probidentziaren bidez, iruzurraren aurkako plana onartzeko espeditentea hasteko agindu zen.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 52.1.k) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Plana onartu ondoren Gardentasunaren Atarian argitaratu beharko da.

2022ko maiatzaren 11an udaleko idazkariak aldeko txostena eman zuen.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2022ko maiatzaren 17ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintza Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“En el pasado pleno del mes de abril aprobamos por unanimidad una declaración institucional en la cual uno de los compromisos que adoptaba el ayuntamiento era la elaboración de un plan de medidas antifraude, el cual traemos hoy para su aprobación por parte del pleno.

“Este documento es necesario para poder gestionar y ejecutar los fondos europeos, el objetivo del plan es por un lado, reflejar la tolerancia cero por parte del ayuntamiento al fraude, la corrupción y los conflictos de interés en todas sus diferentes definiciones o variantes y por otro lado, el plan recoge los procedimientos que el ayuntamiento debe poner en marcha para su prevención, detección y gestión, con



el objetivo de alcanzar un modelo de organización que integra los principios de responsabilidad, transparencia, optimización de recursos y control.”

Gaia eztabaidatu jarri du Alkate andreak eta, lehenbizi, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko eledu-nak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gai honen inguruan, esan den bezala, aurreko plenoan onartu genuen adierazpen institucional bat eta hortik eratorrita bigarren urrats hau datorkigu. Guk, batzordean esan genuen bezala, planarekin ados gaude eta uste dugu ustelkeriaren eta iruzurraren kontra hartu daitezkeen neurri guztiak positiboak dire-la, bere jaiotzarekin edo nondik datorren, horrek pixka bat kezka sortzen digu.

“Verdasco jaunak esan duen bezala, Next Generationeko funtsak jaso ahal izateko ezinbesteko bete-beharra da horrelako plan bat indarrean izatea. Gure ustez, hori, abiapuntu kaxkarra da, nolabait ere, plan guzti hau eta bere kudeaketa eta abar oso esparru teknikitik landu da eta esango nuke oso exigent-zia teknikitik, hau da, nerbio politiko handiko plan bat. Oso beharrezkoa, gainera, oso beharrezkoa da, iruzurra eta ustelkeria dagoen lurralde batetan bizi garelako eta hain zuzen ere, erakunde publikoak herritarren aldetik, nolabaiteko mesfidantza piztu dutenak, azken urte hauetan, ustelkeri kasu oso larriak bizi izan ditugulako ez... mediatikoki, egia da, beti ere, beste esparru batzuetara joatea gustatzen zaigula eta bertako detaile guztiak ezagutzen ditugula baina, hemen bertan, etxean, ustelkeri kasu oso larriak izan ditugu.

“Ezin dugu ahaztu duela gutxi, De Miguel auzia epaitu zela, EAEn inoiz epaitu den ustelkeri kasu handiena izan dela, jarduera mafiosoak eta abar akreditatuak geratu direla. Gipuzkoako Ogasuneko ka-sua dugu, Txomin Errenteria, Bakioko Alkatea kondenatua, iaz izan diren kasu askoko lurralde batean bizi gara, instrukzio fasean, dauden beste batzuk, Alonsotegiko Alkatearena, Bidegiko auzia, hor badau-de kasu asko. Horrek zer esan nahi du? Ustelkeriaren kontra neurriak hartu behar direla, planak egin be-har ditugula, erakunde guztietan. EH Bilduk askotan planteatu izan duela, iruzurraren kontrako bulego bat irekitzea Gazteizen, inoiz ez du babesik lortu beste alderdien aldetik eta, eraman behar da adminis-trazio publiko eta erakunde guztietara ezta.

“Guri kezkatzen gaitu hau egin dugula, pixka bat tramitazio administratibo eta derrigorrezkoa bezala baina, gure ustez badago justifikatua hau, praktikara eramateko errealitate sozial eta politiko batean bizi garelako. Hala ere, noski, aldeko bozka emango diogu eta esan bezala horrelako helburua duten ekimen guztiekin bat egingo dugu.”

Verdasco jaunak erantzuten du:

“Evidentemente, este documento compromete al ayuntamiento, tanto a trabajadores, como a cargos públicos y, entonces, es un documento que ahora mismo lo tenemos..., efectivamente ha venido deri-vado de la exigencia de poder optar a estos fondos pero, evidentemente es un documento que va a que-dar..., espero que aprobado en el ayuntamiento y va a servir para regular toda la organización municipal.

“Quiero aprovechar también para agradecer al Sr. Secretario la labor, es quien ha redactado el plan en un corto periodo de tiempo. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.**- Andoingo Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzea, zeina espedientearen aurkitzen den.

**Bigarrena.**- Iruzurraren aurkako Neurrien Plana udal-zerbitzu guztiei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezkeen eta ondorioak izan ditzan.

**Hirugarrena.**- Iruzurraren aurkako Neurrien Plana Andoingo Udalaren gardentasun-atarian eta webgunean argitaratzea.

#### 4. **Gizartearentzat lan egiteko zigorrak benetan betetzea zioarekin Eusko Jaurlaritzza - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailarekin lankidetzat hitzarmena onartzeko proposamena.**

Ikusirik EUDELe 2022ko otsailaren 9an egindako komunikazioa. Komunikazio horretan Eusko



Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailarekin sinatutako Esparru-Akordioaren Udalari informazioa ematen zitzaion, gizartearentzat lan egiteko zigorrak betetzeko.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuak lansaileko Arduradunak 2022ko maiatzaren 12an egindako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2022ko maiatzaren 17ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Kasu honetan, Gizarte Zerbitzuetako Batzordetik pasa zen gaia eta dakizuenez, EUDELEK 2022ko otsailaren 9an egindako komunikazio batean, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Sailarekin sinatutako esparru akordioaren informazioa udalari ematen zitzaion, gizartearentzat lana egiteko zigorrak betetzeko.

“Decíamos que es un tema, una propuesta que viene del Departamento de Servicios Sociales, por cuanto EUDEL, el 9 de febrero de 2022 informaba al ayuntamiento del acuerdo marco suscrito con el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, para el cumplimiento de penas de trabajo en beneficio de la comunidad.

“Gizarte Zerbitzuetako batzordetik pasa zen eta bueno, aho batez, onartu zen.

“Paso por la comisión de Servicios Sociales y allí fué aprobado por unanimidad, eta, bueno, izango litzkeen ezaugarriak, las particularidades que tendría, izango liratezke, lau urteko iraupena, hau da, 2022ko ekainren 1etik, 2026ko maiatzaren 31ra bitarte.

“Tendría una vigencia de 4 años, del 1 de junio de 2022 hasta el 31 de mayo de 2026 eta, batez ere, bi ezaugarri goraiatzekoak, batetik, Andoaingo herritarrek izan beharko lukete, egingo dituzten pena hauek.

“Estaría dirigido a ciudadanas y ciudadanos de Andoain, que conmutarían las penas haciendo trabajos por la comunidad eta, genero indarkeriako delituak ezin dira izan. No tendrían que ser conmutaciones por delitos de violencia de género.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

5. Onartzea, Andoingo Udala eta Eusko Jaurlaritza - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren artean proposatutako lankidetzaren hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

**Xedea:** Gizartearentzat lan egiteko zigorrak benetan betetzea.

**Iraupena:** 4 urte

**Noiztik:** 2022/06/01

**Noiz arte:** 2026/05/31

6. Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Andoingo udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.

7. Hartutako erabakia Eusko Jaurlaritza - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmena bidaltzea, digitalki sinatzeko.

## 8. 2021eko likidazioaren berri ematea.

Alkate andreak hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Alde batetik, diruzaintza gerakina, remanente de tesorería, 12.759.888 eurokoa izango litzateke, el remanente de tesorería sería de 12.759.888 euros.

“Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, gastos generales, 9.739.185 eurokoa izango litzateke eta 2021eko aurrekontu emaitza 2.650.780 eurokoa.

“El resultado del ejercicio de presupuestos de 2021 sería de 2.650.780 euros.



“Baita ere, kontu emango dugu espediente 1 eta 2 zenbakikoak, beste datuak orduan esplikatu ditugu.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

#### **9. 2022/01 eta 2022/02 zk. espedienteen berri ematea.**

Alkate andreak hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Lehenengo, 2022ko 1 zenbakiko espediente, 3.071.202 eurokoa, el primer expediente de 2022 es por importe de 3.071.202 euros eta, batez ere da, 2021eko 2022ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena. Sería la propuesta para incluir en el presupuesto de 2022 los créditos incorporados de 2021.

“Bigarren espediente. El segundo expediente. Bere inportea izango litzateke 272.340 euro. El expediente 2/2022 sería por un importe de 272.340 euros eta, kasu honetan, adineko pertsonentzako zerbitzuak abian jartzeko kreditua aldatzeko espediente onartzea izango litzateke, batez ere, Josefina Rubio Tío andreak herentziaren kontura. Sería la aprobación del expediente modificativo de crédito para la puesta en marcha de servicios dirigidos a personas mayores, con cargo a la herencia de Dña. Josefina Rubio Tío.

“Gogoratuko zarete lau udaletxei utzi ziela diru kopuru bat adineko pertsonentzako zerbitzu batzuk bideratzeko eta, hain zuzen ere, horiek izango liratezke.

“Como recordarán todos ustedes, se trata de una herencia que se recibió por parte de Dña. Josefina Rubio Tío a cuatro ayuntamientos, para que fueran destinados estos recursos a servicios dirigidos a personas mayores, sobre todo en situaciones de soledad.

“Gizarte Zerbitzuetako batzordean azaldu zen bezala horretarako bideratuko da. Como ya se explicó en servicios sociales ya se han decidido los servicios que se van a llevar a cabo, los programas y, bueno, son todos ustedes conocedores de ellos.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

#### **10. 2022/03 zk. kreditu aldaketa espedientea onartzea.**

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2022-KALD-000003-00) eta kreditu transferentzien (Sarekon 2022-KALD-000004) bidezko kreditu aldaketaren 2022/03 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:

- Udalbatzak erabakitako akordioak 2022.02.24n eta 2022.03.31ean (Gastuak eta abenduko nomina judizioz kanpo aitortzeko proposamenak, kontu-hartzailearen txostenak 2022/01 eta 2022/02)
- 2021eko aurrekontuan onartutako hainbat gastu konpromisu eta ezin izan direnak txertatu (2022/01 espedientea)
- Ajusteak gastuak partida egokietan aplikatzeko (partehartzailetza, ur parkea)
- Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2022.05.17an emandako aldeko proposamena (Ez EH-Bildu)
- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2022.05.18an emandako aldeko proposamena (Ez EH Bildu eta Elkarrekin Podemos abstentzioa)
- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Informatzaileak 2022.04.06an emandako aldeko proposamena (Beterri Buruntza aportazioa: Ez EH Bildu eta Elkarrekin Podemos)
- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Informatzaileak 2022.04.06an emandako aldeko proposamena (Beterri Buruntza gastuak: Aho batez)
- Jarduera Fisiko eta Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2022.01.29an emandako aldeko proposamena (aho batez)





- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Informatzaileak 2022.05.18an emandako aldeko proposamena (KZ gunea, LHI ekipamendua, trantzizio teknologikoa, enpleguko proiektuak: EH Bildu eta Elkarrekin Podemos abstentzioa)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/03 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien eta kreditu transferentzien modalitatekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan izanik.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde irizpenemalaren 2022/05/20 datako irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza eta honako azalpena eman du:

“Bai, kasu honetan, bi zatitan ezberdintzen da, lehenik kreditu gehigarriak, izango liritezke 2.585.786 eurokoa, beste espediente modifikatiboa, el número 3 que se divide en dos partes, la primera sería, créditos adicionales por un importe de 2.585.786 euros, diru kopuru honetatik inbertsio errealerara pasako liritezke 1.762.529 euro, a inversiones reales de este importe irían destinados 1.762.529 euros eta bueno, batzorde bakoitzetik pasatu dira kopurua eta esplikazioak zertan oinarrituko diren eta guztiok jakinaren gainean zaudete eta, gero, esto se ha ido pasando por la diferentes comisiones y se han ido explicando a que van a destinar los distintos modificativos y las inversiones eta, bigarren zatia kreditu transferentzien proposamena izango litzateke, 264.698 eurokoa.

“La segunda parte, sería una propuesta de transferencias de créditos por importe de 264.698 euros. Kasu honetan badakizue dela partida batzuetatik beste partidetara pasatzea eta baita ere, banan-banan joan zen esplikatzen eta denok jakinaren gainean zaudete.

“Decíamos que en esta segunda parte, consiste en pasar de unas partidas a otras, hacer unas transferencias de crédito para ajustar mejor las partidas con el fin de las mismas y también se ha ido dando cuenta de ello en las diferentes comisiones y también por supuesto en la comisión última del departamento de Hacienda.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, guztiok. Alkate andreak aipatu duen bezala, partida hauek, batzorde ezberdinetatik pasa dira azken asteetan, baina, guk, partidekin ados gauden edo ez esatetik haratago, kreditu aldaketa hauen kudeaketa prozeduraz edo hitz nahi dugu.

“Esan bezala, kreditu hauek batzordeetara joan dira, gerakina zein zen jakin gabe, hau da, gerakina zein zen jakin aurretik eramaten ziren kreditu transferentziak batzordeetara eta, guk, esaten genuena zen, nola nahi duzue guk iritzia ematea kreditu transferentzien inguruan gerakina zein den ez badakigu. Prozedura izan behar du alderantzizkoa, hau da, goazen gerakina zein den jakitea eta horren arabera egingo ditugu kreditu aldaketak eta ez alderantziz, hasten gara kreditu aldaketak proposatuz, gerakina zein den jakin aurretik.

“Badakigu aurrekontuei aldaketak egitea normala dela, baina, azken asteetan eta azkenengo Ogasun batzordean ibili ginen bezala, horrela ezin gara ibili, eh... eta, bat hau argitzeko bi adibide jarriko ditut. Batetik, Zerbitzuetan, Leizotzeko ur sarea berritzeko 750.000 euroko kreditu aldaketa proposatzen da eta, kalegarbitzaile elektrikorako 340.000 euro eta ez kasu batean, ez bestean, ez dugu aurrekonturik, ez dakigu zergatik jartzen diren kopuru horiek aurrekonturik eduki ezean eta, ez dakigu ezta ere zein presa dagoen aldaketa hori egiteko, aurrekontua jakitean kopuru zehatza emateko izango dugunean, zeren, Leizotzeko, adibidez, 750.000 euro kostatu beharrean 600.000 izango balitz, 150.000 euro izango ditugu ezingo genituenak ezertan erabali eta hori ekiditea egongo litzateke aurrekontua jakiten dugunean kopuru zehatz hori edo jartzea.

“Adibide bezala, bi horiek jarri ditut, baino, batetik sobratzen denarekin eta bestearekin eta, diru kopuru handietara iristen gara. Diru kopuru handia esaten dudanean, iaz aurrekontuetan onartu eta erabili gabe geratu zen diru kopurua, zehazki, izan zen 2.547.570,45 euro, hau da, aurrekontuaren %10a baino gehiago eta, horri kenduko bagenio edo, dakizuen bezala, gure aurrekontuaren zati handi bat langileen soldatetan joaten da eta, erabilgarria izango litzakeen kopurutik %20a izango litzateke, orduan, erabilgarria den aurrekontuaren %20a baino gehiago erabili gabe uztea, gure ustez, aurrekontuen kudeaketa txar bat egitea da.



“Hala eta guztiz ere, hemen, hona, kreditu aldaketarako ekartzen diren proiektu askorekin ados gaudenez, guk, aldeko botoa emango dugu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro grupo también vamos a votar favorablemente, porque es verdad que hay cosas que han salido de los presupuestos participativos, hay otras partidas que las vemos muy conveniente y que se tienen que hacer pero, un poco, en la línea que ha comentado el Sr. Alvarez, nosotros venimos diciendo en todas las comisiones es que vemos una falta de previsión. Hay cosas que, es verdad, no se pueden preveer, surgen, y hay cosas que deberían estar contempladas dentro de los presupuestos.

“Entendemos que, como he dicho antes, por el bien de todo vamos a estar de acuerdo, pero si es verdad que en algunas nos hemos abstenido en algunos gastos y en otros hemos votado a favor, aunque es verdad que hay modificativos de créditos durante todo el ejercicio en casi todas los ejercicios contables, echamos de menos un poco más de previsión, de que no vayamos según van saliendo cosas, vamos haciendo... porque puede pasar lo que ha dicho el Sr. Alvarez que, si no tenemos una previsión, a ver, estar a todo es verdad que no puede ser, porque hay presupuestos que no puedes saber, hoy mismo hemos tenido una comisión y ha surgido, si es un contrato que vas a sacar nuevo, tampoco puedes prever cuál va a ser el coste, esas cosas pueden suceder, pero hay cosas y creo que sí que tenemos que ser un poco más objetivos y mirarlo mejor y tener en cuenta que es dinero público para poder hacer una mejor gestión, porque no se puede estar todo el rato con imprevistos, eso en contabilidad es una muy mala gestión.

“En general estamos de acuerdo con todo y por ello vamos a votar que favorablemente.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Bueno, matizatzegatik hemen esan diren gauza batzuk. Alvarez jaunak esan du kudeaketa prozedurarekin ez zaudetela alde, ez... orden logiko bat ezarri behar dela eta gerakina ezagutu arte ezin dela inolako aurreikuspenik egin eta, bueno, harritzen nau zeren 2022ko aurrekontu negoziaketan EH Bilduk exijitutako baldintzetako bat izan zen, nahi zuela urte guztiko kreditu modifikazioen eta gobernu taldeak zituen proiektu desberdinen asmoak ezagutu eta faseka gainera, noiz egingo ziren, zein proiektu, ze etapatan, ze epetan eta ze kopuruekin eta, nik uste, gobernu talde honek, urtarrilerako excell tabla bat aurkeztu ziola EH Bilduri non zehazten ziren aurreikuspen guztiak, lehenbiziko 6 hilekoan eta bigarren 6 hilekoan banatuta. Denbora lehentasunen arabera eta inporte batzuek jasota. Asko inporte zehatzak eta asko inporte estimatuak, urtarrilean hitz egiten ari ginelako. Beraz, ondo dago kudeaketa prozeduraz aritzea baino ondoren praktikan aurrekontua negoziatzen hasi garenean eskatutako lehenbiziko gauza izan da, aizue, zein da zuen urte honetarako planifikazioa eta zein da zuen urte honetarako kreditu modifikazioen aurreikuspena eta taula hori eman genizuen, beraz, nik uste dut, ariketa hori egin genuela.

“Por el contrario, Podemos no, Podemos ni preguntó cual era la previsión, claro, Sra. Santana, dice imprevistos y tal, imprevistos hay, ez ohiko gauzak beti daude, baino, hemen aurkeztu diren gauza asko eta asko ez dira “imprevistos”, daude urtarriletik aurreikusita eta EH Bilduk ezagutzen dituen bezala, Podemos-ek ezta galdetu ere ez zuen egin, beraz, esan dezakegu nahi duguna, baino, “imprevistos” ez dira izan horietako asko.

“Hitz egiten da, Alvarez jauna, 2,5 millioi exekutatu gabe geratu dira, bueno oso ondo dago, hori horrela da, baina, kapitulo II, IV kapitulua, alegia, inbertsioak, gastu orokorra, dirulaguntzak, guztiak nahasten baditugu, oso ondo, lortu nahi den datua, bukaerako datua bada, %20 bakarrik ez dela exekutatu, oso ondo, baino, inbertsiotara joaten bagara gastu ahalmena, nire ustez, zerbait hobea da eta %27tik gora gaude, hau da, gobernu honen, inbertsio ahalmena ez da %20a, inbertsioak ez direlako 2,5 milioi, hori, uste dut, udal osoari eragiten dion zifratuz ari zara hitz egiten, orduan, herritarrei esan behar zaie, dirulaguntzak askotan ateratzen dira lerro desberdinak eta eskaeren arabera gastatzen da guztia edo ez. Pertsonal gastuak eta bestelako gauzak, beraz, hori argitzea.

“Portzentajeetan, bi proiektu badituz eta bat exekutatzeko badut, %50a bete det eta nik baldin badituz 10 proiektu badituz eta 5 bete badituz, %50a da. Zertara noa? Hitz egin duzu inbertsio ahalmenaz eta,



noski, hasten zara ikusten 2019a, EH Bilduren azken aurrekontua, 22,8 milioi eurotako, inbertsio aurreikuspen osoa 979.000 eurokoa zen. Aurten gobernu talde honek, jada, horrenbeste exekutatu du, alegia, 700.000 eurotako egikaritze maila dago.

“Beraz, zein da inbertsio erreala? Aitortu behar da, efectivamente, egikaritze horretan atzeratu egin garela, konpromezu asko daude hartuta, lizitazio prozesu desberdinak martxan daude eta zuk ondo dakizun bezala, obrak eta inbertsioak egikaritu ahala, errepzionatzen diren heinean kobratzen dute, beraz, soilik, nahiz eta hain gaizki ibili garen, 2019an EH Bilduren azken aurrekontuetan aurreikusitako inbertsio, inbertsioz ari naiz, inbertsio guztian bezain beste jada exekutatu dugu.

“2018ra joaten bagara. 950.000 eurotaz ari gara, beraz, konparatiba horretan ikusi, portzentaietan tranpak egin ditzazkegu baina, berriro diot, bi proiekturen %50 da proiektu bat eta, 10 proiekturen %50a 5 proiektu dira eta, nik esan nahi nuena horrekin da, gobernu honek proiektu zerrenda mordo bat jarri dituela martxan eta, horietako asko, zoritxarrez, ez dira garaiz eta forman iritsi, beste batzuk bai eta, arrazoiak daude eta utzi arrazoiak esplikatzen zeren bestela herritarrak pentsatzen du, hauek egon dira urtebete eskuak poltsikoetan sartuta eta ez da horrela.

“Bat. Lizitazio asko bertan behera geratu dira eta hori zuek badakizue. Adibide bat, liburutegiarena, joan gara pleguak baldintzaz kargatzen, kargatzen, kargatzen, kargatzen eta ez naiz luzatuko, baina, bi aldiz geratu da bertan behera lizitazioa eta egin behar izan dugu, nolabait, pleguen sinplifikazio bat, arintzeko sinplifikazioak erakargarri egiteko konkurtso hori eta EH Bilduren jarrera izan da alderantzizkoa, ez, ez, goazen oraindik ere sofistikatzen gehiago, exigentzi gehiago jartzera, baldintza gehiago jartzera eta desierto geratzen bada, badirudi hobe, total, podemos decir que EH Bildu, EH Bildu podrá decir que, PNV y PSOE no han sido capaces de poner en marcha el proyecto de la Biblioteca.

“Beste adibide bat, koronabirusa tokatu zaigu eta orain Ukrainiako guda eta, eraikuntzan eta obratan eragin zuzena izan du, adibide bat, ludoteka, ludotekako lizitazio proiektua, berriro ere, bertan behera geratu da ez delako ofertarik izan, zergatik, prezioak kasu askotan %50a igo direlako. Ez dakit datu zuzena den, baina, uste dut, 75.000 mila euroko errebisio bat egin da proiektu berdinentzat, hau da, hormigoiak, metro kubiko hormigoia, urrian balio zuena edo orain balio duena totalmente diferentea da eta, diot hormigoia, altzairua, kobrea edo beste edozein obrako materiala eta, hori, uste dut, urbanismo eta zerbitzuetako batzordeetan ikusi duzue lizitazio prozedura askotan, prezio oso ajustatuak zutenak lizitazioa bertan behera geratu da eta, horrek exijitzen du ahalegin bat, berriro ere prezio horiek errebisatu beharko dira, berriro lizitatu eta listo.

“Hori herritarrei esplikatu behar zaie. Horrelako gauzak gertatu direla. Hirugarrena, ez prezioa bakarrik, suministro falta, ez naiz joango obra handietara, komun bat, komun publiko bat, Sorabillako komuna publikoa, lizitatu eta esleituta dago orain dela denbora asko, egon dira itxaroten hilabete t'erdi materiala jasotzeko, suminstorik ez zegoela, beraz, udal gobernu honek hartu ditzake bere gain ardura batzuk, baina, daude beste koiunturazko baldintza batzuk erakunde guztiei eragiten dituztenak eta suministro falta, prezioen igoera edo bertan behera geratu diren lizitazioak dira hiru argumentu soilik, ez dira izango atzerapen guztien erantzule baina badira nolabait baldintzatu gaituzten nolabaiteko oztopoak.

“Bi adibide jarri dituzu. Barredora eta Leizotz, ba, Leizotzeko proiektua egina dago eta proiektu horrek kuantifikazio ekonomiko bat du, baina, udal gobernu hau, bizilagunekin hasi da dinamika batetan non proiektu hori konpartitzen, aztertzen eta tokian tokiko inplantazioa ikusten eta ikusi da, adibidez, bi adar izan beharrean, faltatzen zela hirugarren adar bat egitea hoditeri horri eta aurreikuspena da proiektu hori egokitzea, hirugarren adar hori gauzatzeko, beraz, que malos sois que no habeis sido ni capaces de cuadrar en 650.000 euros y ahora en 750.000 euros, pues, porque se ha tenido que revisar ese proyecto y ese proyecto se tendrá que revisar y actualmente se está revisando con el técnico redactor, el equipo que tenga que ejecutarlo, desarrollar y licitar en las condiciones pactadas con los vecinos. Actualmente se está haciendo ese proyecto, pero el modificativo de crédito lo tengo que hacer ahora, sin saber si van a ser 750.000 o 745.000 euros y una barredora lo mismo, yo el precio de licitación de barredora lo tengo sacado a un concurso público, yo no puedo decir, quiero este modelo de barredora, yo sé, merkatuan ze prezio dauden eta prezio horren arabera atera behar dut lizitazioa. Hortik aurrera modelo hau izango da edo bestea? Bataz bestekoa izango da, teknikariek prezio hori ezartzen dutenean izango da merkatuko



prezioen arabera, ez da Izagirre andreari edo Alkate andreari bururatu zaiela barredora baten prezioa, ez, lanketa tekniko bat dago.

“Azkenik, nik uste dut, borondate kontu bat dela, prozedura, ez prozedura, askotan kritikatu zaigu kreditu modifikazioak egitea “de forma improvisada” eta zerbait txarra izango balitz bezala, nik uste dut saiatu behar dugula guztiok normaltasun batekin egiten, ez egonkortasun egoera honetan erakunde bat garenez flexibilitate bat izanez. Eskualdeko gainontzeko udaletxeetan halako dinamikak arruntak dira. Justu, oraintxe twitterren ikusi dut Usulbilgo udalak onartu duela aste honetan miloi bateko modifikazio kreditua normaltasunez eta aurreratuta du hiru faseetan izango dela, bat orain, bestea udaran, bestea udazkenean, beraz, goazen, zintzotasunez proiektu horiek aurrera ateratzeko bultzada ematera.

“Berritot, gure gain jarri nahi badira arrazoi batzuk jartzen badira, zuek ez zaretelako gai izan proiektuak aurrera ateratzeko, ez zaretelako garaiz izan proiektu hori, diru hori gastatzeko, bale, oso ondo, baina uste dut herritarrei esan behar zaizkiela eduki ditugula pega desberdina, izan daitezkeenak, prezioak, suministro falta edo bertan behera geratu direla.

“Aurrekontuetan erreserbatzen dut diru partida bat, lizitatzen dut eta, inor ez bada aurkezten, bi aukera ditut, berritot lizitatzera ateratzea eta pentsatzea bigarren lizitazio horretan norbait aurkeztuko dela.

“Esan nahi dut, argazki hori egin dezagun betaurreko baikorrekin eta etxe-kalte izan beharrean izan gaitzezen nolabait positibo, baikor eta gutxienez eraikitzaile.”

Alvarez jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Bukaeratik hasiko naiz. Esan dugu, goazen proiektu hauek bultzatzera eta, guk proiektu hauek bultzatu ditugu eta aldeko bozka eman izan dugu, bestela ezezkoa emango genuen.

“Gauza asko aipatu dituzu, suministro falta, 2018 eta 2019 urteetako inbertsioak, horretan ez naiz sartuko, baina, bai, adibideak aipatu ditugunez, bat aipatuko dut, zuek, abenduan egin genituen aurrekontuak adosteko bilerak, hemen dut, excell orri batean aurkezten dituzue zuen aurreikuspenak. Guk, aurreikuspen horretan, zehatz mehatz, ez dugu kopuru zehatza esaten, noski jarri duzuea, 650.000 euro Leizotzeko eta ondoren bizilagunekin egon ondoren aurreikusten da beste kopuru bat.

“Guk esaten dugu, kreditu aldaketa orain eginda ez dagoenean aurrekontu zehatzik, jartzen badugu, jakin gabe kopuru bat, gutxiago bada, diru hori ezingo dugu erabili, horixe esan dut. Zer gertatzen da, horrelako partidetan, azkenean aurrekonturik gabe eta, badakit ez dela Izagirre andrearen iritzia arabera ezartzen, badakit halako estimazio bat egiten dela, eskatzen dugu zehaztapen handiagoa dagoenean egitea kreditu aldaketa hauek.

“Ez dut esan, urtarrilean ez zenik pasatu. Bai, hemen daukat, hori jasota zegoen. Kreditu aldaketak egiterakoan zehaztu dezagun gehiago, fintzea, zeren, bestela diru pila bat ezin erabilik geratzen da. Hori esan dut. Hala ere, esan dugun bezala, proiektuak bultzatzeko prest gaude eta ondorioz, alde bozkatuko dugu.”

Berritot, Goenaga jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dena den, esplikatzeagatik, gaur, modifikatibo kreditu hau onartzen bada, bihar, udaletxe honek diru horiek gastatu, alegia, esposizio publikoko epe bat du, ez dakit hilabete bat den edo zenbat dan, prozesu bat dauka, alegia, diru hori departamentuetara iristen den arte, pasatzen da denbora tarte eder bat, non, udaran kokatzen gara, beraz, proiektu horiek jada martxan jartzeko, lizitatzeko, adjudikatzeko eta prozesu hori martxan jartzeko epeak dira direnak, nik uste dut, esaten da, jarriko ditugu martxan, bai, pero, berritot diot, geroz eta beranduago jarri hobeto, eta ez badira ateratzen hobeto, arrazoiak izango dituguelako berritot ere egurra emateko eta uste dut kasu honetan egiten dela estimazio bat dagoen momentuan kreditu modifikatibo bat batzordeetatik pasa eta efektibamente likidazio exaktoa ezagutzen den momentuan tramitatzen dira, akaso, eskatu zenean, 2021eko likidazioa eta gastuen likidazioa, jada ez zenuten ikusten estimazio bat ikusi nola zihoan gastuen, hirugarren hilabeteko gastuen bilakaerea.

“Nik uste dut inork ez genekiela zein ziren zifra exaktoak, baina, estimazioa baikorra izango zela, positiboa izango zela gerakina, gutxienez intuitu edo gutxienez antzeman genezakeen.

“Nik esan nahi dudana da, gaur hona ekartzea suposatzen duela udara parterako kreditu horiek erabilgarriak egotea eta, denok dakigu udaran zer pasatuko den eta irailean geroz berritot eta urtea bukatzen da, beraz, inbertsio batzuk, bultzada bat behar badute orain da momentua bultzadan jartzeko.”



Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2022/03 espedientea, kreditu gehigarrien (2022-KALD-000003-00) eta kreditu transferentziaren (2022-KALD-000004-00) modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GEHIGARRIAK**

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	599.543,65
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	173.713,11
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	50.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	1.762.529,49
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>2.585.786,25</b>

**FINANTZAKETA**

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	2.585.786,25
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.585.786,25</b>

**KREDITU TRANSFERENTZIAK****Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulu a	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	235.000,00	102.448,20	132.551,80
6	INBERTSIO ERREALAK	162.250,00	162.250,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>397.250,00</b>	<b>264.698,20</b>	<b>132.551,80</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulu a	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	0,00	80.000,00	80.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT	10.000,00	7.448,20	17.448,20



	ETA ZERBITZUETAN			
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	76.500,00	15.000,00	91.500,00
6	INBERTSIO ERREALAK	113.000,00	162.250,00	275.250,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>199.500,00</b>	<b>264.698,20</b>	<b>464.198,20</b>

2.- Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

### 11. Jarduera Fisiko eta Kirolak Tasen aldaketa.

Ikusirik, Jarduera Fisiko eta Kirolak Batzorde Irizpenemailearen 2022/04/08 datako irizpena.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzailearen 2022/05/20 datako irizpena.

. Romero andreak, Jarduera Fisikoa eta Kirolak Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa azalpena emateko: "Kaixo, arratsalde on. Gai hau, Jarduera Fisikoa eta Kirolak batzordean aztertu zen eta ondoren Ekonomia eta Ogasuna batzordean maiatzean aztertu da, alde batetik, udako kanpainako tasak daude eta beste aldetik, 2022-2023 ikasturterako tasetan sartzea.

"65 urtetik gorakoentzat gimnasia, dantza eta besteak eta GAP eta besteak.

"Decía que este tema se trató en abril en la comisión de Actividad Física y Deportes y en mayo en la comisión de Economía y Hacienda. Por un lado están las tasas correspondientes a las actividades de la campaña de verano y por otro lado, la incorporación de unas tasas para el curso 2022-2023, las cuales son gimnasia y baile para mayores de 65 años y Gap y otras.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- 2022 urterako Jarduera Fisiko eta Kirolak udal zerbitzuen tasen aldaketa onartzea.

### 5.3.- Udako kanpaina / Campaña verano

Jarduerak / Actividades	Hilabetekoak Mensuales		Hamabostaldikoak		Astebetekoak
	Astean 2 egun	Astean 3 egun	Quincenales		Semanales
			Astean 2 egun	Egunero	Egunero
	2 días semana	3 días semana	2 días semana	Diario	Diario
	ez abonatuak	ez abonatuak	ez abonatuak	ez abonatuak	ez abonatuak
Laufit, Spining, Pumpa, Funky, Balance, Pilates...eta besteak/ Laufit, Spining, Pump, Funky, Balance, Pilates...y otras.	55,50 €				
Aquagyma / Aquagym	39,00 €	55,50 €			
Yoga	39,00 €				
Konbinatuak Aerobika Combinados Aerobic	39,00 €				



Konbinatuak Spininga, Pampa, Combata...ea besteak / Combinados Spining, Pump, Combat...y otras	55,50 €				
Tenisa, Eskalada, Patinak eta besteak. Tenis, Escalada, Patines y otros				39,00 €	24,00 €
Goizean Kirolean Abentura Junior				117,75 €	58,87 €
Haur txikiak / Bebes			31,50 €		
Igeriketa 3-4 urte / Natación 3-4 años				63,75 €	
Igeriketa 5-6 urte / Natación 5-6 años				47,25 €	
Igeriketa +6 urte / Natación +6 años				39,00 €	
Igeriketa helduak / Natación adultos				39,00 €	

**K-STRECH.** Hilekoa eta astean bi saiokoa: abonatuentzat 31,15 € eta abonatuak ez direnentzat 47,25 €.

• **2022-2023 IKASTURTEAN :**

65 urtetik gorakoentzako gimnasia, dantza, besteak/Gimnasia, baile y otras >65 años...30 € urteko / año, eta:

Astean egun bateko ikastaroak/Cursos de 1 día por semana	Hilabete 1 1 mes	3 hilabete 3 meses	9 hilabete 9 meses
GAP eta besteak / GAP y otras	10,50 €	31,50 €	94,50 €

egoki irizitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu Ordenantza behin betiko onetsita geratuko da.

## 12. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 675/2022 zenbakidunetik 846/2022 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 675/2022 zenbakidunetik 846/2022 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## 13. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Bukatutzat emango dugu gaurko udalbatzarra. Dakizuenez, oraindik eta Santakrutzen ondorioak Covidaren ondorioak jasaten ari gara, tasa inzidentzia herrian oraindik altua da 750 ia puntukoa. Hemendik eskatzen dugu arduraz eta zuhurtziaz jokatzera.

“Decíamos que damos por finalizado el pleno de hoy y recordar a la ciudadanía que la tasa de incidencia en nuestro municipio sigue siendo alta estamos en más de 700 puntos y por ello seguimos pidiendo a la ciudadanía que siga actuando con responsabilidad y prudencia.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 19.45 minutu zirenean. Idazkariak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.



Andoaino Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2022/05/26

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 26/05/2022

Alkatea

Idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU82954b55-5784-465f-a694-3d4b8dce865e**

*Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**